



LEGEZKOTASUN-TXOSTENA, EUSKADIKO AUTONOMIA ERKIDEGOAN  
DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZEN BALIOKIDEAK DIREN ATZERRIKO  
HEZKUNTZA-SISTEMETAKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN  
IKASTETXEETAN ESPAINIA ETA EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZA ETA  
KULTURA IRAKASTEKO CURRICULUMA ETA GUTXIENEO ORDUTEGIA  
EZARTZEN DITUEN AGINDU-PROIEKTUARI BURUZKOA

13/2024 LT – LGAKZ  
DNCG\_ORD\_1642/23\_07

AURREKARIAK

Hezkuntza Sailaren Ikastetxe eta Plangintzako Zuzendaritzak izenburuan adierazten den agindu-proiektuari buruzko legezketasun-txostena igor dezagula eskatu digu.

Txosten-eskaerarekin batera, dekretu-proiektuaren testua eta jarraian zehazten dugun dokumentazioa bidali digu:

- Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, zeinaren bidez alde aurretiko kontsulta egiten baita xedapen orokor bat egiteko, Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko irakaskuntzen baliokideak diren atzerriko hezkuntza-sistemetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan gaztelarazko eta euskarazko hizkuntza eta kulturako irakaskuntzen curriculuma eta gutxieneko ordutegia finkatzeko, 2012ko martxoaren 12ko agindua ordezkatzeko (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Adostasun-eginbidea, Hezkuntzako sailburuordeak sinatutakoa, alde aurretiko kontsulta egiteko Hezkuntzako sailburuaren aginduarekin bat egiten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ  
tef. 945 01 86 30 – Fax 945 01 87 03



- Hasierako agindua, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko hezkuntza-sistema baten irakaskuntza ematen duten unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan gaztelania eta literaturako, euskara eta literaturako eta geografia eta historiako irakaskuntzak ezartzen eta arautzen dituen agindua egiteko prozedura hasten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Adostasun-eginbidea, Hezkuntzako sailburuordeak sinatutakoa, Hezkuntzako sailburuaren hasierako aginduarekin bat egiten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Agindua, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko hezkuntza-sistema bateko irakaskuntzak ematen dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gaztelania eta literatura, euskara eta literatura eta geografia eta historia irakaskuntzak ezarri eta arautzen dituen agindu-proiektua aldeztu aurretik onesten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Adostasun-eginbidea, Hezkuntzako sailburuordeak sinatutakoa, agindu-proiektua aldeztu aurretik onesten duen Hezkuntzako sailburuaren aginduarekin bat egiten duena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Agindu-proiektuaren lehenengo zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2023ko uztailaren 10ean igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Justifikazio-memoria, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak 2023ko uztailaren 18an sinatutakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Txostena: haur, nerabe, gazte eta familian gaineko eraginari buruzkoa eta Euskal Autonomia Erkidegoan atzerriko hezkuntza-sistema baten irakaskuntzak ematen dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan gaztelania eta literatura, euskara eta literatura, eta

geografia eta historiaren irakaskuntzak ezartzen eta arautzen dituen aginduaren gainekoa, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak 2023ko uztailaren 13an sinatutakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)

- Txostena: Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, 2023ko uztailaren 21ekoa (euskeraz)
- Txostena: Generoaren araberako eraginari buruzko txostena, 2023ko abuztuaren 28koa (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Ebazpena: Ebazpena, 2023ko irailaren 18koa, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoan derrigorrezko irakaskuntzen baliokideak diren atzerriko hezkuntza-sistemetako irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxeetan Espainiako eta Euskal Herriko hizkuntza eta kulturako irakaskuntzen curriculum eta gutxieneko ordutegia ezartzen dituen agindu-proiektua
- Txostena: EMAKUNDEk agindu-proiektuari buruz egindako txostena, 2023ko irailaren 18koa (gaztelaniaz)
- Irizpena: Euskadiko Eskola Kontseiluak agindu-proiektuari buruz emandako irizpena, 2023ko irailaren 23koa
- Txostena: Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena (euskeraz eta gaztelaniaz)
- II. Justifikazio-memoria, Ikastetxe eta Plangintzako zuzendariak 2023ko azaroaren 14an sinatutakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)
- Agindu-proiektuaren II. zirriborroa, Tramitagune aplikaziora 2023ko azaroaren 14an igotakoa (euskeraz eta gaztelaniaz)

- Alegazioak: Bilboko Ikastetxe alemaniarreko elkarteak agindu-proiektuari aurkeztutako alegazioak, 2023ko urriaren 27koak (gaztelaniaz)
- Txostena: Bilboko Ikastetxe alemaniarreko elkarteak jarritako alegazioen gainean egindako txostena, Tramitagune aplikaziora 2023ko azaroaren 14an igotakoak (gaztelaniaz)
- Alegazioak: Bilboko Eskola amerikarrak agindu-proiektuari aurkeztutako alegazioak, Tramitagune aplikaziora 2023ko azaroaren 14an igotakoak (gaztelaniaz)
- Adierazpena: Bilboko Nazioarteko Ikastetxe alemaniarren zuzendariak euskararen sendotzeari buruz eginiko adierazpena (alemanieraz eta gaztelaniaz)

### **LEGEZKOTASUN-AZTERKETA**

Txosten hau jarraian adierazten diren lege eta dekretuetan xedatutakoarekin bat etorri izortzen dugu:

- 7/2016 Legea, ekainaren 2koa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa (5.1 a artikulua)
- 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena (11.1 eta 2 b artikulua)
- 18/2020 Dekretua, irailaren 6koa, Lehendakariarena, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen (7.1 i artikulua)
- 8/2021 Dekretua, urtarrilaren 19koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoa (15.1 a artikulua)

## **I.- Proiektuaren xedea, azalpena eta edukia**

Espedientean dekretu-proiektuari buruzko bi zirriborro daude jasota, biak euskerazko eta gaztelaniazko bertsioetan: lehenengoa, 2023ko uztailaren 10ean Tramitagune aplikaziora igotakoa; eta bigarrena, eta azkena, 2023ko azaroaren 14an igotakoa. Bada, bigarren zirriborro hori da txosten honetan aztertuko duguna.

Agindu-proiektuaren arau-eragina aztertzeko memorian adierazten den bezala, proposatzen den arauaren beharra eta egokitasuna abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoa (LOMLOE) onartu zenetik gertatu diren aldaketetan oinarritzen da. Lege horrek aldatzen ditu maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa, Hezkuntzakoa, eta maiatzaren 30eko 77/2023 Curriculum Dekretua.

Aldaketa horiek Euskadiko Autonomia Erkidegoan egin dira, lege horren babesean, eta zenbait aldaketa sartu dituzte Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako etapetako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua arautzen duen oinarrizko curriculum-araudian. Beraz, curriculum horiek unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzak emateko baimena duten atzerriko ikastetxeen baldintza espezifikoetara egokitu behar dira, maiatzaren 28ko 806/1993 Errege Dekretuaren 3.1.a) artikuluan aipatzen diren derrigorrezkoen baliokideetara.

Arau honen helburuak honela dibertsifikatzen dira: lehenik eta behin, atzerriko hezkuntza-sistema bat irakasten duten unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura eta Geografia eta Historia irakasgaiak ezarri eta arautzea.

Bigarrenik, curriculumaren egokitzapen metodologikoa finkatzea, bai eta gutxieneko ordutegia, irakasleen ezaugarriak, gaztelania eta literatura, euskara eta literatura, eta gizarte-zientziak lehen hezkuntzan eta geografia eta historia derrigorrezko bigarren hezkuntzan.

Hortaz, agindu-proiektuaren xedea da irakaskuntza horiek ezartzea eta arautzea atzerriko hezkuntza-sistema bateko irakaskuntzak ematen dituzten unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan. Ondorioz, proposatutako araua indarrean sartzean, aurreko xedapenak aldatzen dira, gai hori araututa baitago. Izan ere, aurreko araudiak bertaratutakoez bestelako helburuei erantzuten die, eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen da irakaskuntza horiek sartzea eta arautzea.

Hala, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzan indarrean dauden curriculumak arautzen dituen araudia indarrean sartzearen ondorioz (2023ko ekainaren 9an argitaratu ziren), aldatu egin da Euskadiko Autonomia Erkidegoko atzerriko ikastetxeetan gaztelania eta literatura, euskara eta literatura eta geografia eta historia irakaskuntzak arautzen dituen 2012ko martxoaren 12ko Agindua, gure erkidegoan 2012an indarrean zegoen curriculumaren arabera finkatu baitzen.

#### - AGINDU-PROIEKTUAREN TESTUAREN AZTERKETA

Testuaren azterketari gagozkiola, agindu-proiektuaren egitura honako hau da: azalpen-zatia, erregulazio berria justifikatzen duten arrazoiak jasotzen dituena; xedapen-zatia, 8 artikuluz osatua; xedapen indargabetzaile bakarra; eta bi azken xedapen; bata, aginduaren beraren garapenari buruzkoa, eta bestea, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean indarrean jartzea xedatzen duena.

Artikuluen edukia, berriz, honako hau da:

1. artikulua: xedea eta aplikazio-eremua
2. artikulua: curriculum
3. artikulua: ordutegia
4. artikulua: irakasleak
5. artikulua: ebaluazioa
6. artikulua: tituluak eta ikasketak homologatzea eta baliozkotzea

7. artikulua: zentroak ikuskatzea
8. artikulua: euskera eta literatura salbuespena

## **II.- Izapidetzea**

Aztergai dugun agindu-proiektuak xedapen orokorren izaera du. Beraz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean jasotako manuzko izapideak bete beharko ditu, eta betetzen ditu.

Aldez aurretiko kontsulta publikoaren izapidea bete da, 6/2022 Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Halaber, espedientean hasierako agindua eta aurretiazko onespren-agindua jasota daude, biak ere Hezkuntzako sailburuak izenpetuak.

Hasierako aginduak bete egiten ditu agindu hori emateko organo eskudunari buruz eta agindu horrek izan beharreko edukiari buruz 6/2022 Legearen 12. eta 13. artikuluek xedatutakoa. Aurretiazko onespren-aginduak, berriz, bete egiten ditu 15. artikuluan zehaztutako irizpideak.

Bestalde, espedientean ez dago jasota memoria ekonomiko espezifikorik, baina Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 15.5 artikulua dagokion Sailaren esku uzten du memoria ekonomiko espezifikoa egin ala ez, arauaren eragin ekonomikoaren arabera. Eta, kasu honetan, araua proposatzen duen Sailak egoki iritzi dio, memoria ekonomiko espezifikoa egin ordez, agindu-proiektuaren arau-eragina aztertzeke memoriaren d) atalean ekonomi eta aurrekontu eraginari buruzko aipamen zehatza egiteari. Horrekin, bete egiten du artikulua horretan aurreikusitakoa.

Beste horrenbeste esan behar dugu Sailaren aholkularitza juridikoaren txosten juridikoari buruz. Espedientean ez dago jasota espedientearen edukiari eta analisi juridikoari buruzko txosten juridiko espezifikorik, baina Lege beraren 15.4 artikulua dagokion Sailaren esku uzten du txosten juridiko espezifikoa egiteko aukera, eta araua proposatzen duen Sailak agindu-proiektuaren arau-eragina

aztertzeko memoriaren b) atalean espedientearen edukiaren azterketa juridikoa egitearen alde egin du. Horrela, bete egin du artikulua horretan xedatutakoa.

Bestalde, azterketara igorritako agindu-proiektuaren testuak bete egiten du Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 10.4 eta 14.5 artikuluetan hizkuntza ofizialen berdintasunaren erregulazio-printzipioari buruz eta testua bi hizkuntza ofizialetan idazteko betebeharrari buruz ezarritakoa. Izan ere, testua bi hizkuntzetan idatzi da hasieratik, aldeaz aurretik onartzeko izapidea egin eta ondorengo instrukzio-fasean izapidetu baino lehen, eta ondorengo faseetan ere ele bietan landu da, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz, aldi berean.

Eta lojiko da holan izatea; izan ere, bi testuen segurtasun juridikoa bermatzeko ezinbesteko baldintzak dira horiek, kontuan izanda testuaren bi bertsio linguistikoak direla ofizialak eta benetakoak. Horrela jokatuta, prozeduraren bermeak bi bertsiook dituzte, eta horrek ez soilik zehaztasun eta baliokidetasun juridikoa hobeto bermatzea, baizik eta segurtasun juridikoa handiagoa izatea dakar.

Testuaren bi bertsio linguistikoez ari garela, gure autonomia-erkidegoa izendatzeko bietan erabiltzen diren termino ezberdinez ohartarazi nahiko genuke. Izan ere, gaztelaniazko testuaren izenburuan eta, ondoren, aginduaren testuaren gorputzean ere, “Comunidad Autónoma de Euskadi” erabiltzen den bitartean, testuaren euskarazko bertsioan “Euskal Autonomia Erkidegoa” erabiltzen da, sistematikoki, gaztelaniazko bertsioan “Comunidad Autónoma de Euskadi” denaren ordaina emateko. Eta, egia esan, ez da oso ondo ulertzen zergatik egiten den bereizketa hori, “Euskadi” izanik autonomia-erkidegoa izendatzeko euskarazko terminoa.

Beraz, testuari zehaztasun eta segurtasun juridiko handiagoa emateko besterik ez bada ere, uste dugu komenigarria litzatekeela agindu osoan modu bakar eta bateratuan izendatzea gure autonomia-erkidegoa, hau da, “Comunidad Autónoma de Euskadi (CAE)” edo “Euskadi” gaztelaniazko bertsioan, eta “Euskadiko Autonomia Erkidegoa (EAE)” edo “Euskadi” euskarazkoan. Eta



izendapen hori proposatzen dugu, batetik agindu-proiektuaren gaztelanizako bertsioan jada horrela jasota datorrelako, eta bestetik, Gernikako Estatutuak izendapen hori darabilelako -Euskadi-, bai euskaraz bai gaztelaniaz, autonomia-erkidegoa izendatzeko:

**1.artikulua.** Euskal herriak, bere naziotasunaren adierazgarri eta autogobernua iristeko, Autonomia Erkidego gisa eratzen du bere burua Espainiako Estatuaren barruan, **Euskadi** zein Euskal Herria izenez, Konstituzioarekin eta oinarrizko erakunde-arau duen Estatutu honekin bat.

**Art. 1.º** El Pueblo Vasco o Euskal-Herria, como expresión de su nacionalidad, y para acceder a su autogobierno, se constituye en Comunidad Autónoma dentro del Estado Español bajo la denominación de **Euskadi** o País Vasco, de acuerdo con la Constitución y con el presente Estatuto, que es su norma institucional básica.

Hortaz, iradokitzen dugu arauaren gaztelaniazko bertsioan “comunidad autónoma de Euskadi (CAE)” edo “Euskadi” izendapena erabili denez, euskarazkoan ere “Euskadiko autonomia erkidegoa (EAE)” edo “Euskadi erabiltzea”, horixe delako Gernikako Estatutuaren 1. artikulua, bai euskaraz bai gaztelaniaz, autonomia-erkidegoa izendatzeko darabilen termino bateratua, eta horixe delako ere Eusko Jaurlaritzak Euskadi nazioartean ezagutzera emateko abiatutako estrategian hautatu duen izendapena: Euskadi Basque Country 2025.

Azkenik, agindu-proiektuaren bi bertsioen izenburuen idazketa egokitzea iradokitzen dugu; izan ere, aginduaren 1. artikuluan zehazten da arauaren xedea dela Gaztelania eta Literatura, Euskara eta Literatura, Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza eta Oinarrizko Hezkuntzarako Geografia eta Historia irakasgaiak ezartzea eta arautzea; baina, azterketara igorritako testuen izenburuetan hauxe esaten da: “Espainia eta Euskal Herriko Hizkuntza eta Kultura irakasteko curriculum” euskeraz, eta “enseñanzas de lengua y cultura española y vasca” erderaz.

Eta, hasierako aginduan eta espedienteetan jasotako memorien izenburuetan, berriz, beste hau jasotzen da: “Gaztelania eta Literaturako, Euskara eta Literaturako eta Geografia eta Historiako Irakaskuntzak” euskeraz, eta “Lengua Castellana y Literatura, de Lengua Vasca y Literatura y de Geografía e Historia” erderaz.

Legezketasun-azterketara aurkeztutako aginduaren bi bertsioetan ez zaie aipamenik egiten Natura, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagutza irakasgaiari, ezta Oinarrizko Hezkuntzarako Geografia eta Historia irakasgaiari ere. Hortaz, izenburuon idazketa bateratze aldera eta arauaren xedea hobeto jasotze aldera, iradokitzen dugu agindu-proiektuaren euskarazko eta gaztelaniazko testuen izenburuak aldatzea eta honela idaztea:

Euskaraz: “AGINDUA, 2023KO XXAREN XX (E)KOA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, **EUSKADIKO** AUTONOMIA ERKIDEGOAN DERRIGORREZKO IRAKASKUNTZEN BALIOKIDEAK DIREN ATZERRIKO HEZKUNTZA-SISTEMETAKO IRAKASKUNTZAK EMATEN DITUZTEN IKASTETXEETAN **GAZTELANIA ETA LITERATURA, EUSKARA ETA LITERATURA, NATURA, GIZARTE ETA KULTURA INGURUNEAREN EZAGUTZA ETA OINARRIZKO HEZKUNTZARAKO GEOGRAFIA ETA HISTORIA IRAKASGAIK** IRAKASTEKO CURRICULUMA ETA GUTXIENENKO ORDUTEGIA EZARTZEN DITUENA”.

Eta gaztelaniaz: “ORDEN XX DE XX DE 2023, DEL CONSEJERO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE FIJA EL CURRÍCULO Y EL HORARO MÍNIMO DE LAS ENSEÑANZAS CORRESPONDIENTES A **LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA, LENGUA VASCA Y LITERATURA, CONOCIMIENTO DEL MEDIO NATURAL, SOCIAL Y CULTURAL, Y GEOGRAFÍA E HISTORIA** EN LOS CENTROS DOCENTES QUE IMPARTEN ENSEÑANZAS DE SISTEMAS EDUCATIVOS EXTRANJEROS EQUIVALENTES A LAS ENSEÑANZAS OBLIGATORIAS EN LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI”.

### **III.- Ondorioa**

Adierazitako ohartarazpen horiek eginda, aldeko irizpena ematen diogu legezketasun-azterketara aurkeztu diguten agindu-proiektuari.

Hori da igortzen dudan txostena. Edonola ere, Zuzenbidean hobeto oinarrituta legokeen beste edozeinen menpe jartzen dut.

Euskadiko administrazio orokorraren zerbitzu juridiko nagusiko letradua